

## EGUNEROKO EUSKARAREN ERE SUSTATZAILE (Piarres Lafitteri omenaldia, Uztaritzen, 2001eko irailaren 22an)

*Henri Duhau*

Noiz ezagutu nuen Piarres Lafitte? Euskaldun Gazteriako idazkari-ibiltari nintzen Baionan, soldadogotik landa, 1963 urte hondarraz geroztik. E.G., badakizue, baserritar gazteen mugimendu giristinoa dela. Hain maitatua izana zen *Gazte* kazeta orduan itzalia zen eta haren ordaintzeko nolabait ireki genuen sail berri bat *Herria* astekarian “Gazteen Oihartzunak” deitu genuena eta sail horren arduradun gertatu nintzen laster. Gazteek artikuluak igortzen zizkiguten eta nik mekanikaz jorik ezartzen nituen gero *Herria*-rat eramateko. Eta beraz aste guzietan ikusten nuen Piarres Lafitte. Segidan biziki errexki antolatu ginen elkarrekin. Guk ahal bezain planttan egiten genuen lana eta *Herria*-n ere estimatzen zuten gazteen parte hartzea beren artean. Harreman hobereanak ukan ditugu beti. Horra beraz harekilako ene lehen ezagutzak.

Nahi nuke oroitarazi gertakari bat goiz huntan nehork aipatu ez duena. 1964an Piarres Lafitteri omenaldi bat eskaini zitzaion (ukan duen lehena, ene ustez) Baionan *Herria*-k hogei urte bete zituenean eta han gertatu nintzen hain xuxen “Gazteen Oihartzunak”eko arduradun bezala. Sekulako laudorioak ukan zituen denengandik eta guzietan eskerrak bihurtzerakoan hauxe atera zuen: «Hoinbertze lore ukaitearekin, uste nuen hila nintzela!» Entzule guzietan irri zafla eder bat jauzarazten zigula!

Omenaldi hura bururatzean Piarres Lafitte hasi zen han ginen guzietan presentatzen bederazka. Ene aldia etorri zenean, izena erran eta gero “Leizarragaren ildotik hitzak” erabili zituen. Soberakinak atzeman nituen zeren-eta ez bainuen denbora hartan batere pentsatzen egun batez euskararen barnetik ikasten ariko nintzela! Euskaltzalea nintzen, baina euskara enetzat komunikazio tresna on bat zen fedeaz hitzegiteko, ideia berrien zabaltzeko, laborari mundua aitzinartzeko, laneko moldeak hobetzeko eta abar... Ez nuen bigarren mailako ikasketarik eginik, eta ondorioz, hizkuntzalaritza osoki gai helezina zitzaidan; errexki ulergarria da beraz ene orduko pentsamoldea.

Gero ezkondu nintzen eta zombait denboraz ez nuen anitz ikusi Piarres Lafitte. Dantzaz okupatu naiz hogoi bat urtez eta denbora hartan Euskal Dantzarrien Biltzarrak gaitzeko saila eramaki zuen. Dantza gehienak batu egin zituen, euskara batuak lehen urratsak eman zituen urte beretan hain xuxen. Bai-

na dantzen batasuna egin arau aipatzen zen ere behar zirela bildu urrats batzu oraino biltzekoak (dantza osorik, biltzekorik, ez zen pentsatzen bazegoela) eta horrelako gomendioak entzutean ari nintzen beti ene buruarekin: «Dantza urrats hondar horiek horren garrantzitsuak badira, zenbatez ez dira baliosago oraino biltzekoak diren hainbertze euskalki?».

Ni ez nintzen dantzari irakaslea ofizios eta dantzaren teknikan baino errexkiago nenbilen euskalkien erdian. Iparralde guzia kurrutua nuen ezkondu aitzin eta gure aldeko euskalki gehienen ulertzeko gai nintzela ere iduritzen zitzaidan. Bertzalde etxean eta herrian euskara hutsean bizi izanak ginen gure haur eta gaztaro guzia, ez baita holako unibertsitaterik euskalki baten bereganatzeko bederen...

1980-1981 urteetan Koldo Artola ere ibilki zen hemen gaindi karraskan euskalki biltzen eta horra nola ni ere lotu nintzen Beskoitzeko aditza behar nuela idatzirik eman, ohartua bainintzen lau eleketarako formak biziki ontsa ematen genituela: toka, noka, zuka eta xuka. (Ikus *Hasian-Hasi Beskoitzeko Euskara* - lehen parte). Geroxago deklinabidea eta ahoskera ere bildu eta landu nituen. Eta gero hor nintzen ez jakin zer egin ene lanttoarekin. Lafitteri igortzen banio? Ez nekien orduan zenbatetaraino euskalkiez axolaturik zebilen, baina banekien Euskal Herriko gauza orok interesatzen zuela eta beraz igorri nion. Igorri banuen igorri ikusi beharko zenuten zer ongi etorria egin zidan! Handik goiti iduri zuen ni nintzela jauna eta hura ene zerbitzaria! Zinez sobera ona izan da enetzat geroztik.

Bizkitartean kezkatu joana nintzaion lehen aldian ene lanttoarekin. Herrietako euskara batetik eta bertzetik euskara batua gomendiatzen bainuen delako lanean. Eta jakina Lafittek eta bertze batzuek Iparraldeko euskara batu bat bezala landua zutela artoski, bai *Herria*-n, bai elizkizunetan erabiltzeko eta lapurtar-baxenafartar gehienek edo denek ulertzen dutena. Baina ez zen kexatzerik gertatu neholara ere eta bizpalau aldiz elkar ikusi genuen eta bertze bizpalau gutun ere igorri zizkidan beti ene sustatzen ari zela. Bainituen oraino halako uzkuratun batzuk. Eta Lafitte ohartua zatekeen.

Behin batez erraten dit: “ttenpan” hitza Beskoitzeko dela iduritzen zaizu? Nik baietz segidan. Beharbada ez dut nehoiz erabili baina Beskoitzekoa izan daitekeela beti bai. Hala da, erraten dit Lafittek, misionest batek kondatua baitaut. Huna. Misioneko azken eguna, meza nagusia eta jendea heldu otoitzerat trumilka. Apez misiolaria ere han denen agurtzeko eta ongi etorria egiteko. Aita familiako bat ere heldu da bere bortz edo sei urteko muttikoarekin. Elizan sartzean erraten dio bere haurñoari: «Harraxu ur benedikatua, Aitaren egiteko, Jesus hor baita». Eta haur ttipiak, abantxu nigarez, aitari buruz: «Jesus hor baita, ttenpan?» (ttenpan = trenpan = bustia). Lafittek hori kontatzean ari nintzen ene buruarekin: «Zer da istorio hau: “ttenpan” bezalako hitz ttipi ez-deusa, erdaratik zuzen-zuzena hartua, horren inportanta baitzaio gizon jakintsu horri, munduko literatura finenak aztertuak dituen horri?»

Baina istorio ttipi horrek ukan zuen bere eragina ene baitan: “ttenpan” garrantzitsua bada, dena da garrantzitsua, egin nuen. Ausartzia emendatu zidan eta deblauki ene lanen publikatzerat bultzatu ninduen; lehenagoko “Leizarragaren ildotik” soberakinak neuzkan hitz haiek ere nolabait inarrosi ninduten bezala eta bertze asko solas eta gutun beti ene sustatzaile izan direnek bezala. Piarres Lafitteren pedagogia hori nahi dut azpimarratu arras eraginkorra izan baita. Jokabide eta jeinu horri ohartu naiz emeki-emeki, ikertzaile munduan, mailarik apalenean bada ere, sarrarazi baininduen nihaur kasik ohar-tu gabe.